CANVA:
KARTEL ETA IRUDIEN DISEINUA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Nork emandako ikastaroa:

TA PUNTU
www.tapuntu.eus



ELKARTEENTZAKO IKASTAROAK

Aurkezpen honen helburua, elkarteei informazio orokorra eskaintzea da.
Testu honek dibulgazio xedea du soilik eta ez du izaera ofizialik.

www.donostia.eus/partaidetza/formazioa

Ikastaroa

- Datak: 2026/09/22 eta 2026/09/29
- Ordutegia: 18:00-20:00
- Irakaslea: Arkaitz Sukuntza Alkorta (TaPuntu Kooperatiba)

Eta zu? Nor zara, nondik zatoz eta zer dakizu Canva tresnaz?

Gaurko gai zerrenda

Canva erabiltzen ikasi eta diseinu koherentea sortu

- Canva-ren oinarriak
- Diseinu on baten oinarriak
- Elkartearen identitate bisuala Canva-n
- Sare sozialetarako diseinuak
- Canva-ren trikimailu azkarrak
- Ariketa

Canvaren oinarriak

Zer da Canva?



- **Diseinu grafikorako online plataforma**

Canva-rekin:

- Sare sozialetako argitalpenak
- Dokumentuak
- Kartelak eta flyer-ak
- Bideoak
- Aurkezpenak
- Newsletter-ak
- Inprimatzeko materialak
- AI bidezko edukiak

Canva: doakoa ala Pro?

CANVA FREE

- Txantiloi ugari
- Argazki eta elementu ugari
- Oinarrizko diseinu-tresnak
- Bideo eta aurkezpenak
- AI tresna batzuk

https://www.canva.com/es_es/canva-para-ongs/

CANVA PRO

- Premium baliabide gehiago
- Background remover
- Magic Resize / tamaina aldatzea
- Brand Kit
- AI tresna gehiago
- Edukien programazioa
- Biltegiratze handiagoa



Canva-ren ingurunea

- 🔎 Bilatzailea
- 📁 Proiektuak
- 🧩 Txantiloiak
- 🖼️ Diseinuak
- ➕ Diseinu berria
- 👤 Kontua / marka

Zer diseinatu nahi dugu?

Canva irekitzean lehen galdera:

•**Zer sortu nahi dut?**

Ez: “Zein txantiloi dago politena?”

Adibidez:

Ekitaldi bat iragartzeko

•→ Kartela
→ Instagram post-a
→ Story-a
→ WhatsApp irudia
→ Reel baten portada

•**Helburua → formatua → diseinua**

Txantiloia: laguntzaile bat, ez azken emaitza

TAPUNTU

Txantiloi bat erabiltzea ez da kopiatzea.

Txantiloia: **ABIAPUNTUA da.**

Aldatu:

- Testuak
- Koloreak
- Tipografiak
- Argazkiak
- Elementuak
- Tamainak
- Antolaketa

Diseinu on baten oinarriak

Diseinu on batek zer lortu behar du?

- Diseinu batek ez du zertan:

❌ Konplexua izan
❌ Elementu asko eduki
❌ “Super diseinatua” izan

- Bai:

✅ Ulertzeko erraza
✅ Irakurtzeko erraza
✅ Koherentea
✅ Helburu argikoa
✅ Ikusmen erakargarria

Hierarkia bisuala

Irakurleak ez du dena aldi berean ikusten.

1. **Zer da?**
2. **Zer jakin behar dut?**
3. **Zer egin behar dut?**

Adibidea:

EKITALDIA

Euskararen etorkizuna hizpide

📅 Urriak 15 · 18:00
📍 Kultur Etxea

👉 IZENA EMAN

Ez jarri dena tamaina berean

- **Txarra:**

EKITALDIA
URRIAREN 15EAN
18:00ETAN
KULTUR ETXEAN
EUSKARAREN ETORKIZUNARI
BURUZKO HITZALDIA
IZENA EMAN

Hobe:

EKITALDIA
Euskararen etorkizuna
Urriak 15 · 18:00
Kultur Etxea
IZENA EMAN

Tipografia

- Arau sinplea: **2 TIPOGRAFIA NAHIKOA DIRA**

Adibidez:

- **Tituluak → Montserrat Bold**
- Testua → Open Sans Regular

- Ez erabili:

❌ 5 tipografia
  ❌ Letra oso apainduak testu luzeetan
  ❌ Testu txikiegia
  ❌ Kontraste eskasa

- **Tipografia ere diseinuaren parte da.**

Koloreak

- Elkarte baten kasuan:

2 edo 3 KOLORE NAGUSI

60 / 30 / 10 araua erabil dezakezu:



%60 — kolore nagusia
%30 — bigarren kolorea / neutroa
%10 — azentu kolorea

Ez da formula zurruna.

Helburua: **Koloreek elkartea identifikatzen laguntzea.**

Kontrastea

Testua irakurtzeko:

Kontrastea behar dugu.

❌ Testu gris argia hondo zuriaren gainean
✅ Testu iluna hondo argiaren gainean
❌ Testu txikia argazki konplexu baten gainean
✅ Argazkiaren gainean kolore-eremu bat edo overlay bat

Espazioa ere diseinua da

Ez bete dena.

WHITE SPACE / ESPAZIO HUTSA

Elementuen inguruko aireak:

- Irakurketa errazten du
- Hierarkia sortzen du
- Diseinua garbiago egiten du
- Elementu garrantzitsuak nabarmentzen ditu

Batzuetan, diseinu hobea egiteko gauzak kendu behar dira.

5 galdera diseinu bat argitaratu aurretik

1. Zer ikusten dut lehenengo?
2. Ulertzen al dut 3 segundotan?
3. Testu gehiegi dago?
4. Koloreak eta tipografiak koherenteak dira?
5. Badakit zer egin behar dudan ondoren?

TAPUNTU

Elkartearen identitate bisuala Canva-n

Zergatik behar dugu identitate bisuala?

Elkarte baten komunikazioan:

- Instagram post bat
- kartel bat
- aurkezpen bat
- newsletter bat

ez lukete zertan berdinak izan.

Baina **elkarte bera direla antzeman behar da.**

Koherentzia = ezagutza + profesionaltasuna

Zer definitzen du gure marka?

- Gutxienez:

🎨 Koloreak
🔤 Tipografiak
◼ Formak / elementu grafikoak
📷 Argazkien estiloa
🖼 Logoaren erabilera
🗣 Komunikatzeko tonua

Logoarekin ez dugu dena konponduko

Akats ohikoa: “Logo hau daukagu, beraz marka eginda dago.” Ez.

- Logoak identifikatzen gaitu.
- **Identitate bisualak**, berriz, gure komunikazio osoa lotzen du.

Canva-n gure marka sortzen

CANVA PRO erabiltzen baduzue:

Brand / Marca

•→ Logoak
→ Koloreak
→ Tipografiak
→ Txantiloiak

Horrela diseinatzerakoan:

ez dugu beti hutsetik hasi behar.

Gure elkartearen mini Brand Kit

3 kolore

- Nagusia
- Bigarrena
- Azentua

2 tipografia

- Tituluak
- Testua

1 estilo

- Argazkiak
- Ikonoak
- Formak

Eta logoa gehitu.

Sortu txantiloiak!

- Elkarte batek behin eta berriz egiten dituen diseinuak:

 Ekitaldia
 Argazki-post
 Aholkua
 Agenda
 Albistea
 Datu / infografia

Sortu **txantiloi bat bakoitzarentzat**.

Hurrengoan: **DUPLIKATU → ALDATU → ARGITARATU**

Sare sozialetarako diseinuak

Diseinu bera, formatu desberdinetan

- Eduki bera:



Eduki bat → formatu desberdinak

Ez egin dena hutsetik.

Zer jarri eduki batean?

Formula sinplea:

ARRETA → INFORMAZIOA → EKINTZA

ARRETA “Badator gure urteko hitzordua!”

↓

INFORMAZIOA

📅 Urriak 15
📍 Kultur Etxea
⏰ 18:00

↓

EKINTZA

👉 Izena eman

Canva-ren trikimailu azkarrak

10 tresna erabilgarri

- **1. Posizioa**
  Elementuak lerrokatzeko.
- **2. Taldekatzea**
  Hainbat elementu batera mugitzeko.
- **3. Geruzak**
  Elementuak aurrean/atzean kokatzeko.
- **4. Kopiatu estiloa**
  Diseinuaren estiloa beste elementuetara eramateko.
- **5. Gidak**
  Diseinua ordenatzeko.

Beste 5

- 6. Background Remover
- 7. Magic Resize
- 8. Transparency
- 9. Lock
- 10. Duplicate

Canva-ren bilatzailea

- Ez bilatu soilik:

“flower”

- Saiatu:

“minimal flower illustration”
“hand drawn flower”
“vintage flower”
“abstract blue background”
“people volunteering”

Ariketa praktikoa

Sortu zure elkartearen Instagram post bat

Zuen elkarteak jarduera / ekitaldi bat antolatu du.

- **Diseinuan sartu:**


Izenburua

Data

Ordua

Lekua

CTA

Elkartearen identitatea

Baldintzak:

- 2 tipografia gehienez
- 3 kolore nagusi
- Testu hierarkia argia
- Ez bete guztiz diseinua
- Logoaren erabilera egokia

Irudiak eta baliabide grafikoak

Diseinu batek irudi ona behar du

Irudi batek ez du soilik **polita** izan behar.

Irudiak:

- 📌 Mezua indartu behar du
- 📌 Testuingurua eman behar du
- 📌 Emozioa sortu dezake
- 📌 Marka transmititu behar du

Irudi bat aukeratzea ere komunikazio-erabaki bat da.

Canva-ko irudiak bilatzea

Bilaketa hobetzeko formula:

ZER + ESTILO + TESTUINGURUA

Adibidez:
elderly people + natural photography + community

Argazkia ala ilustrazioa?

Ez dute gauza bera transmititzen.

📷 Argazkia

- Errealismoa
- Hurbiltasuna
- Konfiantza

✏️ Ilustrazioa

- Sormena
- Gaztetasuna
- Kontzeptuak azaltzeko aukera

🎨 Grafiko / ikonoak

- Informazioa
- Sinpletasuna
- Infografiak

Irudi bat editatzea

- Moztu
- Biratu
- Distira
- Kontrastea
- Saturazioa
- Filtroak
- Blur
- Gardentasuna

Baina arau bat: **Ez editatu editatzeagatik.** Helburua ez da efektuak erabiltzea; **irudia diseinuaren barruan integratzea** da.

Frames / Markoak / MockUps

Markoak erabil daitezke:

- Argazkiak txertatzeko
- Zirkuluak
- Mugikor baten barruan
- Ordenagailu baten pantailan
- Forma bereziak

Canva + Adimen Artifiziala

Magic Write / testu bidezko AI

Adibidea:

“Sortu Instagramerako testu labur bat gure elkarteak antolatutako auzoko garbiketa-jarduera iragartzeko.”

Ondoren:

DOITU

- Laburragoa, hurbilagoa, euskara errazagoan, gazteagoa, formala, CTA batekin…

Magic Write / testu bidezko AI

Adibidea:

“Sortu Instagramerako testu labur bat gure elkarteak antolatutako auzoko garbiketa-jarduera iragartzeko.”

Ondoren:

DOITU

- Laburragoa, hurbilagoa, euskara errazagoan, gazteagoa, formala, CTA batekin…

Irudiak sortzea AA-rekin

Canva-n irudi bat sortzeko:

Ideia → deskribapena → emaitza

•Adibidez:

“Auzo batean elkarlanean ari diren pertsonen irudi bero eta natural bat, argazki errealista, eguzki-argiarekin, kolore naturalekin.”

Bideoa eta reelak

Animazioa eta diseinu dinamikoak

Azken ariketa

Bideo bat egingo dugu

📱 Formatua: **9:16**
⏱️ Iraupena: **10-15 segundo**
📸 3 irudi
📝 Testu laburra
🎵 Musika
✨ Animazio sinplea
👉 Amaierako CTA

ARGAZKIA 1
👥 Pertsonak / taldea
ARGAZKIA 2
🤝 Jarduera / elkarlana
ARGAZKIA 3
😊 Emaitza / jendea elkarrekin

Eta testu hau:
ELKARREKIN GEHIAGO GARA
Gure elkartean parte hartu
📅 Urriak 18
📍 Donostia
ZATOZ!

Galdetegia



TAPUNTU

Eskerrik asko!

www.tapuntu.eus

Zubiaurrenea 6 • 943 046 771 • 691 166 409
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
info@tapuntu.eus